Ohar batzuk eskuinaz eta ezkerraz

Eskuinak eta ezkerrak aztertzea, sua aztertzea da. Ea moldatzen naizen, neu erreskaldatu eta inor kaskaldu gabe, eta halare burdin gorriei helduz.

INTERPRETAZIO KONZEPTUAK

Eskuin eta ezker konzeptuak polarizazio baten adierazgarri bezala erabiltzen dira: polarizazio tankera jakin bat adierazteko. Gogoan eduki behar da beti, errealitatea interpretatzeko direla konzeptuok, eta ez dadukatela derrigor egokia izan beharrik. Errealitateak ez dadukala horrelakoxea izan beharrik. Ez noiz nahi. Gure gizartean orain-goz gertatzen ari diren polarizazioen aurrez-aurre, ez zait oso segurua iruditzen, konzeptuok errealitateari ondo dagozkionik. Alegia, eskuinak eta ezkerrak *sortuko diren* egoera batetara, ailegatzen ari gara. Baina ez nago ziur, gaur eskuin eta ezker trazak dituzten horiek, eta sarri horrela izendatzen ditugun horiek, oraindik egiazko eskuin eta ezker ote diren. Dena den, polarizazio baten haserak nabari dira. Polarizazio hori honez gero hitz hauekin ongi adieraz ote daitekeen, denbarekin ikusiko da.

Berez berdintsu dirudi, norbait eskuindartzat ala ezkertiartzat edukitzeak. Zergatik izan behar du hobe, eskuindar izateak, ezkertiar izateak baino? Zergatik aldrebes gauza bera? Halare, berezkuntza horrekk ia beti balorazio bat berekin ohi du. Ezkertiarrak desprezioz aipatzen du "eskuina". Eta eskuindarrak gorrotz "ezkerra".

Garbi jakin, ezkertiarrak eskuina zer den bezain guti, jakin ohi du eskuindarrak ezkerra zer den. Bientzat hasera haseratik garbi dagoena, bata bestearen balorazioa izaten da: ifernua beti bestea da. Sentitu bai, errazago egiten da, zerbait eskuindar ala ezkertiar den.

Konzeptu tinkoak ere ez dira, baloraziori bagagozkio. Giro sozial arruntaren arabera, gizartearen erizpide eta juzgaerak aldatu egiten dira. Gazteenak nekez burura lezakkete horrelakorik, baina denbora asko ez duela, norbait ezkertiarra zela esatea, eta *burutik oso* sano ez zegoela esatea, berdin samarra zen. Orduan, arrazoimen kritikoaren eginkizuna ezkerraren arrazoizkotasuna erakustea zen. Orain ezkertiar izatea modan dago. Eskuindar izatea lotsagarri da. Eta zenbat eta modan jarriago, orduan eta sonobismoaren arrisku gehiago, ezkerrarentzat. Ezkerraren ondoan ultra-ezkerra sortzen da. Ezkerreria. Rikardok ezkerrismoa esaten zuen. Eta galdera hau botatzen zuen: "Ezkerrista hauen ekintzek kapitalismoa sendotu edo ahuldu egiten dute? Erantzuna iluna da... Ezkerrismoak sortzen dituen iskanbila eta borroka hauek izan daitezke reboluzio baten ataria eta bezperak, bainan baita ere izan daitezke kapitalismoaren inauteria batzuk, hau luzaroan sendotzeko modu bat".

ELKARREN OSAGARRI ETA ELKARREN ETSAI

Eskuin eta ezkerraren arteko mugimendu pendularra ez da gaur goizean hasitako historia Jenerale-an eskuintzat eduki ditekeen alderdi kontserbadorearen eta gaurko eskuindar militanteen artean, halare, antzik baino diferentzia gehiago dago: kontserbadore klasiko haundiak liberal ziren, inolaz ere ez erreformen etsai, irikimenaren jspirituzkoak. Eta ezkertiarrak errealista ziren. Bi joerek elkar osatzen zuten, eta posible izaten zen batak besteari, txandan bezala, gobernuan jarraitzea bera ere. Kontserbadoreak eta progresistak gizarte baten edo historia politikoaren esku biak bezala ziren. Bat baino gehiago harrituko da, baina ez dago dudarik, kontserbadoreek iniziatiba progresista asko biztu izan dutela historiaren martxan.

Gaur ikusten ditugun eskuinek ez dadukate Burke edo Tocqueville batekin, kontserbadore liberal klasikoekin, batere zerikusirik: Hauen umeak ez, baina inkisitoreenak dira. Kontserbadoreak ez baina, atzera-joaileak dira. Eta gaur ikusten dugun ezker radikala ere, ezker politiko klasikotik baino gehiago, ezker profetiko eta konspiradoretik dator. Aurrerantz ez baina, beste munduren batera nahi du. Gizarte hau "irauli" nahiez biak dabiltza: bakoitzak bere aldera eta bere modura iraultzekotan, noski. Baina biek ezeztatzen dute gizarte hau. Eta "hau" esanez, azpian gaduzkana baino gehiago, esan nahi dut.

Desarroilo normalik ez dagoelako gehiengoari gizarte bat ezetsi beste erremediorik gelditzen ez zaionean, ezker eta eskuinen radikalismoen *ordua izaten da. Krisi edo* gaitzaldietan radikalismoa ondartzen da. Gure egoerak honelakoa dirudi.

Kondizio sozialak ezkerraren aldekoak direnenan, esan bezala, ezkerra baino haruntzago ezkerreria sortzen du. Eskuinak, berriz, baszterturik eta mehatzaturik sentitzen du bere burua. Ehize zakurrek erasotu eta ingurutariko piztiaren moduan. Eta pizti estutua bezalaxe, agresibo eta burrukari bihurtzen da.

Radikalismo hau konprenigarria da. Gizartean nolanahiko talde guzien arteko odol zirkulazioa ebakitzen denean, baita ezkerraren eta eskuinaren artekoa ere, hots, taldearen elkarrengandik banatzen eta polarizatzen direnean, gizarte hori gaitzak jota dago. Desarroilo "normalik" gabeko gizartea, orobat, gaiso dago. Radikalismoa kalentura politikoa bezala da. Eta holaoetan zorabio politiko hanitz ezagutzen da.

BAKARDADEA ETA EZKERRERIA

Egungo ezkerra, dirudienez, ez du bere bakardadeak hainbeste kezkatzen. Nahiko seguru sentitzen da, eta gaurko giroak sentimendu hortan osotoro finkatzen du. Indartsu sentitzen delarik, ez du sumatzen, bakardadea nolako arriskua den. "Indartsu" sentitzen dela esanez, ez dut noski gorabehera sozialetako ezkerraren indarra, efikazia bezala, adierazi nahi. Ezpada bai, *egiaren jabe oso sentitzearen sen*timenduak ematen dion eskubide guzien jabe sentitzeko indarra. Orduan ezkerrak ere neurriak galtzen ditu; kasu berdinetan eskuinari pasa zaion antzean. Eta gurutzada ezkertiarrak ez dabiltza gurutzada eskuindarretatik urrutiegi. Gurutzada horiek askotan kixotada hutsak baldin badira ere.

Adimenaren aldetik edozeinek daki, egiaren jabe bakar eta oso izaterik ez dagoela. Printzipioz, alegia. Horregatik, eskubide guziak edukitzearen eta egiaren jabe oso izatearen sentimentua, jeneralean guziz inkonzientea, zenbait postura eta jokaeratan agertzen da. Halakoak ez ingurunearen, ez tradizioaren eta ez izpiritu santuaren begirunerik edukitzen du. Edozeinekin eta edozerekin sartzen da. Tradizioak deusez iruditzen zaizkio. Instituzio sozial guziak antigoaila hutsak. Neurritasuna eta gizalegea baino birtute baliosoagoak dira ausardia eta irudimena. Gizartea irauli nahi bait da, lehenengo gizartea erregulatzen duten balio etikoak gainazpikatzen dira. *Aldi* honetan gabiltzala, esango nuke.

Nola ailegatzen da balio guzien ezeztatze eta gainazpikadura hortara? Radikalismoaren barneko dinamikak berez darama hortara, batipat, eta dinamika hortan *faktore asko sartzen da. Radikalismoa* etengabe bere burua "superatuz" doa, geroz-eta radikalagotuz, eskuineko muturra jotzeraino agian, edo nihilismoraino bestela. Adibide bat, tradizio literarioari buruzko geure jokabideetan ikusten dela uste dut: 50 eta 60garren urteetan euskera "garbiaren", literatura aranistaren eta "garako" idazleen eta gainintzekoen jorraldia egin zen. Txillardegik, Arestik, Mitxelenak, makina bat jipoi eman eta eraman zuten bazterretan. Gure klasikoen berbiztaile lehiatsuak ditugu horietxek, eta horiei zor diegu gehienbat klasikoen berbizte hori. Astiro-astiro "eskuindarrek" ere honez gero onartu dituzte klasiko hauk: lehenago ez zituzten hain gustoko. Gaur klasikoak nonbait gustoko ez dituena, berriz klasikoei jipoia ematen hasi dena behintzat, ezker radikala dugu: atzoko "ezkerrak" hainbeste goraitzen zuen, eta ezguarazten hainbeste lan eskaini dion literatura klasiko gurea, "baina literatura ote hori gero?"; literatura subsidiario eta akzidental bat" baizik ez da; Euskal Herriko burgesia-oligarkiaren euskarririk le*hialena, burges klasearen eragile* eta mendeko, ideologia klerikal-txaubinista baten konpendio, etab. "Aranistarik" gogorrenak ere ez ditu hain gogor hartu gure klasikoak. (Hemen ez digu axola kritika honen bidezkotasunak ala ezak; gertaerak bakarrik arduratzen gaitu orain).

Esan bezala, ezkerra bere buruaren ukazioz azten da. Baina bere buruaren eta ukazio hauen mugapen bat lortzen ez badu, ezkerra eskuinarekin bat izatera, ala bestela nihilismora, amiltzen da. Bere buruaren kontrariotara pasatzen da.

Honelakoak, kultur arazoetan baino gogorragoak eta ugariagoak kausitzen dira politika arloetan.

Fenomeno honen iturburu bat ezkerraren bakardadea da. Ezkerra baliogo bat in se (berenez) bilakatzen da, ezkerrean egotea besterik gabe ondo ikusita dago, eta hau bere baitan aislatzeko modu bat da: errealidadeari baino bere buruari lotuago gelditzen bait da jadanik ezkerra. Honen kausa bat *errealidadeen gobernutik apartatu*rik egotea da). Holakoetan gainez ka egiten du, aislamenduarekin sortzen den egozentrismoak, eta modu guziz oldartzaile gaiztoan egin ere: dena txikituz erasotzen du, ez bait du gauza onik eta erres*petagarririk inon aurkitzen*, norkberaz aparte. Eta ezin aurkitu, aislatuta egonik. Ez bait du egiazko ihardukimenik besteren zeregine-kin, ezta haien ondasunetan parterik ere. Proletkulturalismoaren historian ongi ikusten da desarroilo dialektiko hau: bere balioaren kontzientzia gehiegizkoak bakardadera eragiten dio ezkerrari, bakardadeak egozentrismora, bakardadeko egonzetrismoak beste inon ontasunik ez ikustera eta bere balioa absolutizatzera (kasu hartan panproletismora), nork bere kontzientzia honek bakardadea haundiagotzen du berriro eta beste guztien kontrako griña sustatzen, etab.

EZKERRERIA ALA EZKERRA?

Historian behin gehiagotan ikusi dugu ezkerra bere buruaren kontrario itzultzen. Esperentzia horien ondoren, bere baitako arrisku hori kontuan hartzen ez duen ezkerra, irresponsablea da.

Eta gure artean badugu jadanik arrisku hortan pentsatzeko ordua, gauzak okerragotu baino lehenago. Ezin bait dugu pentsatu, geroago hasiko garela autokritika hortan; "karga astunarekin hobeki jaikiko garela arinarekin baino", apika.

Gure herrian ere, nola orain jendearen estimazio arruntean "ezkerra" ondo ikusia dagoen, ahalik ezkerrenera jotzeko lehia sortu da. Norgehiagoka sortzen da, zein ezkerrago ausartu, zein ezkertiarrago *agertu. Ausardia*, ordea, ez dago beti arrazoizkotasunarekin batera. Quevedori sinestekotan behintzat, ausardia gehienetan ez da bildur disfrazatua besterik. Eta Leninek ere horrelako zerbait pentsatzen zuen, ausaz, ezkertiar amorratuenak burges-tipi ikaratuak izan ohi direla, ohartarazten zuenean. Hain zuzen burges-tipien ezkerreria delakoxea ere, ezker-zalekeria radikala puntu askotan bat da eskuin radikalarekin. 20garren eta 30garren urteak dira honen probarik bikainena: radikalismo sozialista eta faxista, apenas elkarrengandik berez zitezkeen bi suge bezala, korapilatu zirenean. Dena dela, batzutan ausardia ezkerrerista radikala taktika maltzurra ere izan ditekeela dirudi. Adibidez, euskal ezkerra (apala, noski, oraindik) erdibitzeko.

Haatik ere, Marxen aldean Bakunin txit radikala zen; nabarmena da hori. Lenin baino ezkertiar radikalago eta garbiago asko zegoen: Pannekoek, "komunista ezkertiarrak", prolet-kulturalistak, etab. Stalinek ezker aldera "desbidaturen" batzuk garbitu ei zituen: Bazeuden halakoak ere, hortakoz. Maok ere "ezkerreristen" kontra makina bat buruhauste erabili behar izan du bere bizitzan, egunotaraxe arte. Ho Tschi Minhek lehenengo "ezkertiarrak" bazterreratu behar izan zituen, borrokari *ekiteko. Oso berandu* arte Castro ia-ia eskuindar txobinistatzat jotzen zuen ezkertiar zorrotz askok (Alderdi Komunista Cubanoak berak ere).

Ezkerra besterik gabe sozialki begi onez ikusia dagoenean, ezker radikalak eta garbiak aisa dirudi, horixe izatea beste meriturik gabe, gauzarik positiboena. Hau da, "ideologia" bat bilakatzen da ezkerra. Mito bat. Eta holako ezkerra ez da ezker, noski.

ESKUINAZ ZERTXOBAIT

Ezkerraren arrisku batzuk aipatu ditut. Ez dago ao-berotzerik, oraindik ez dago ezker indartsu eta eginik, eta arriskutan ere ez dago ezer garbirik. Txinpartak bezala dira. Posibilidadeak dira. Beharbada argi-txakurrak besterik ez, baina kasu egin behar zaie: benetako ezker baten azkuntza behaztopa lezakete.

Eta eskuinaz zer?... Nik ez dakit zer esan. Ez dakit. Egia aitortzeko, niri eskuina ez zait gehiegi interesatzen, eta materialik ere ez dut, zehazki ezagutzeko. Eskuinaren indarberritzea ez ote da normalegia izan, inori gogoeta haundirik burutarazteko? Fenomeno garbia dirudi; ez dago burua zertan hautsirik, esplikatzeko. Aldizkari batzuk irakurri eta gero, batek ez daki zer pentsatu, txarkeria ezpada. Ideien aldetik ez dut ezer interesgarririk ikusten. Entzuten dugun gehiena, lehendik ezagutzen genuen (eta lehenago esanda hobeto konprenitzen genuen). Bakarrik, orain ozenago esaten dela. Eta, dakidanik behintzat, teoriarik egin ere ez da eskuin aldean egiten. Asmoetan ere ez dut ezer *interesgarririk sumatzen. Orain* arteko eskuin guziak ez dirudi posturen gogortasuna eta militantismoa besterik. (Puntu konkretu batzuetako haien asmoak eta pentsakera, ikastolei buruz adibidez, beste noizpait ikertuko ditugu).

Gainera, bolada baterako nekagarria izan genezake, baina etorkizunari begira, nik ez diot eginkizunik ikusten. Egia da, aisa engaina gintezkeela, "denboraren seinaleei" antzematerakoan: zenbait goiz argik ilunabarra dirudi. Dena den, ni metereologo bezala txarra naiz, eta profeta bezala, ezta hori ere. Niregatik lasai itxaron lezake eskuinak etorkizun oparo bat (baina ez diot horixe opa).

Hori bai, beldur naiz, eskuin berri (edo zaharberri) honetan ere ez ote dagoen, azpian, eskuinaren azpian izkutaturik sarri egon den katua: hizkuntza eta asmo idealista ederren azpian, izkutatzea hobe diren interesak, estalita. Gaurko eskuindarrek ezkertiarrei buruz barreiatzen dituzte honelako susmoak. Eta litekeena da, ezkerrean *ere horrelakorik ez faltatzea. Bai*na historiari begira, eskuina beti ezkerra baino trebeago agertu izan da tranpa horietan. (Eskuinak ezkerrez jazten ere jakin izan zuen, komeni zitzaionean). Honi ere kasu egin beharko zaio.

Joxe AZURMENDI

aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK.
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIAK.

ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11499
DONOSTIA

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA

UGARTE

Urbieta, 66 DONOSTIA

Ez Merkenak
Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Olek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI